

## ELKARLANEAN PROGRAMA 2024

Helburua (1. oinarria)	Itzuli behar ez diren diru-laguntzak eskaintzea : a) lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak egiteko partzuergoko enpresen artean, arriskuak partekatuta. b) Bizkaiko enpresa batzuen artean identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta legalari buruzko azterlanak egiteko.									
Erakunde onuradunak (3. oinarria)	Enpresak, jarduera nagusia hauetariko bat badute: Industria, Eraikuntza, Industriari lotutako zerbitzuak, Turismoa eta Handizkako merkataritza baldintza hauek betetzen direnean: <ul style="list-style-type: none"><li>Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaian izatea..</li><li>Gutxienez ekoizpen zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaian izatea.</li><li>5 eta 100 pertsona arteko plantilla edukitzea lanaldi osoan, baina betiere urteko kopuru baliokideetan.</li></ul> Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten baina proiektuan parte hartzen duten enpresak izango dira dekretuko kapitulu honen onuradunak, baldin eta guztiek egindako gastuak diru-laguntza jaso dezaketen oinarritzko gastu osoaren % 20 gainditzen ez badu. <ul style="list-style-type: none"><li>Zerga betebeharrak, G. S.-kikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.</li></ul>									
Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (4. oinarria)	Diruz lagunduko dira lankidetzan sortutako berrikuntzaren alde baliabide eta arriskuak partekatuz enpresa batzuen artean eginiko proiektuak. Horren arabera, bi proiektu mota aurkeztu ahal izango dira, haien garapen-fasea kontuan hartuta: <ul style="list-style-type: none"><li>Lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak, enpresen negozio-estrategiekin koherente direnak.</li><li>Enpresa batzuen artean identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasuna aztertzea berrikuntza-proiektuak sortu ahal badira.</li></ul> Sailarekin interlokutore aritzeko, erakunde liderra izango da proiektuaren barruan gasturik handiena egiten duen enpresa.									
Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (5. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"><li>Proiektuari loturiko kanpoko gastuak</li><li>Proiektuan diharduten langileen ondoriozko gastuak; enpresako eta hileko gehienez ere 80 ordu hartuko dira kontuan (baita enpresako 2 pertsona gehienez ere)</li></ul>									
Diru-laguntzen zenbatekoa (6. oinarria)	<table><thead><tr><th rowspan="2">Kostu mota</th><th colspan="2">Diru laguntzaren %</th></tr><tr><th>35-60 puntu</th><th>&gt; 60 puntu</th></tr></thead><tbody><tr><td>Kanpoko gastuak</td><td rowspan="2">40%</td><td rowspan="2">60%</td></tr><tr><td>Barneko gastuak</td></tr></tbody></table> <ul style="list-style-type: none"><li>Dekretu honetako laguntzaren gehieneko zenbatekoa 60.000 € izango da eskabide bakoitzeko.</li><li>Ordainetak proiektua gauzatzaren arabera egingo dira, justifikazio partzialak edo osoa jaso ondoren.</li><li>Ez da 6.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango.</li></ul>	Kostu mota	Diru laguntzaren %		35-60 puntu	> 60 puntu	Kanpoko gastuak	40%	60%	Barneko gastuak
Kostu mota	Diru laguntzaren %									
	35-60 puntu	> 60 puntu								
Kanpoko gastuak	40%	60%								
Barneko gastuak										
Balorazio irizpideak (17. oinarria)	Onartuak izateko, proiektuek 35 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez, irizpide hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"><li>Proiektuaren garrantzia partzuergoko enpresentzat (15 puntu).</li><li>Proiektuaren berrikuntza maila (35 puntu).</li><li>Lankidetzan partzuergoa (30 puntu).</li><li>Aurkeztutako proiektuaren kalitatea (10 puntu).</li><li>Konpromiso soziala eta iraunkortasuna (2 puntu).</li><li>Lan-baldintza egokiak (3 puntu)</li><li>Genero-berdintasuneko ibilbidea (2 puntu, gehienez).</li><li>Gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan (3 puntu, gehienez).</li></ul>									
Diru-laguntzak emateko araubidea (16. oinarria)	20/2024 Foru Dekretua, otsailaren 22koa. (BAO 41. zk., 2024ko otsailaren 27koa). Norgehiagokako araubidearen prozeduraren bidez emango dira diru-laguntzak.									
Epeak (13. eta 25. oinarriak)	Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko martxoaren 4ko 8:30etatik 2024ko martxoaren 22ko 13:30era arte. Proiektua gauzatzeko epea: 2023ko urtarrilaren 1etik 2025ko ekainaren 30era arte, biak barne. Eskabidea Ekonomia Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez egingo da ( <a href="http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual">www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual</a> ). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, ...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bitartez sartu. B@kQ ziurtagiria gure bulegoetan eska daiteke, Orueta Apezpikua kaleko 6an.									